



Kontuei eta aurrekontuari buruzko biltzarra

Iragan otsailaren 16an, azken urteetan egin izan ohi den moduan, Agoizko Udalak udalerriko bizilagunei 2018. urteko kontuak eta aurrekontuak aurkeztu zizkien Kultura Etxean.

Berrogei pertsona inguru elkartu ziren lan-saioan eta Unai Lako alkateak eta Carmen Cosín Ogasun zinegotziak bideratu zuten bilera. Bilkura laurogeita hamar minutukoa izan zen. Aurrekontue-

tako kontzeptu eta kontu guztiak azaldu zituzten bilera aretoan proiektzio dinamiko baten bidez. Bertaratu ziren udaleko gainontzeko ordezkariak beste sailetan 2017 urtean burututako jarduera guztiak azaldu zituzten ere bai.



Amaitzeko, Unai Lako alkateak 2018 urterako Agoizko Udalak prest dituen erronkak eta ideiak azaldu zituen laburki.

Horren bidez, udal kudeaketa zuzenean ezagutu genuen. Gainera, azalpen osoa biltzen duen eta bileran landu egin zen dokumentu grafikoa webgunean eskuragarri dago, irakurgai eta inprimatzeko. Gardentasuna eta kontuak argi eta garbi.

Prestakuntza ikastaroak

Otsailean zehar, Cederna Garalurrek, Navarra Emprende sarearen bidez eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Agoizko Udalaren laguntzarekin, doaneko bi tutoretza sustatu zituen bultzatzaile, pyme eta autonomoentzat. Otsailaren 20 eta 27an izan ziren, Aurelio León Aretoan, eta haietan 14 enpresari eta bultzatzailek parte hartu zuten. Honako hauek izan ziren emandako ikastaroak: lehena, "Antolatu zure paperak Ogasunarekin betetzeko", enpresa txikiko gestioari buruzko tutoretza saioa, Administrazioarekin egin beharreko tramiteak egiten



ikasteko; eta bigarrena, "estresa kudeatzen ikastea".

Martxoan beste tailer bat programatuta dago ziurtagiri digitala

lortu eta erabiltzen ikasteko. Izena emateko telefono honetara deitu behar da martxoaren 13a baino lehen: 639 905 359.

Hirigintza arloko jarduerak

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuko Errepideak Mantentzeko Zerbitzuari esker, asfaltatu dira San Migel auzoa eta Mendiburua bitarteko zenbait leku. Aurki egiten da Agoizko ardatz nagusiko bigarren partea, eta konponduko dira Mendiburutik Udal Hilerrirainoko errepidean higatu eta hondatutako puntuak.



Nafarroako Gobernuak inbertsioaren kostea bere gain hartu eta obra guztia ordaindu du, errepideak mantentzeko ekipoa zuntz optikoa instalatzeko Agoitzen zegoela probestuz.

Udalak esker ona adierazi nahi dio Nafarroako Gobernuari eta Errepideak Mantentzeko Zerbitzuari egindakoagatik, izan ere, udalak dituen lehentasun eta hurbileko planen artean ez zegoen Karrika Berriko zoladura konpontzea.

Bestalde, Agoizko Udalak, herriko alde zaharreko trafikoa ordenatzeko, aparkatzea debekatzeko seinale bat jarri du Pasalekuko alderdian, eta ingurua apaintzeko landare-ontzi batzuk jarri ere.

«Zaindu Agoitz, zure etxea da» kanpainak biltzen dituen neurrietako bat da. Haren bidez herritarren gizabidetasun portaerak bultzatu nahi dira, zaborra kalera ez botatzea edo zirkulazio arauak betetzea, besteak beste.

Ate zabaleko eguna Haur Eskolan

Pasa den otsailaren 26an ate zabaleko jardunaldi bat antolatu zen 0-3 urtekoentzako Haur Eskolan. Egunaren helburua Agoizko zein eskualdeko familiei zentroa ezagutzera ematea zen. Aktibitatea arratsaldean egin zen, txikien jardunaldia bukatuta, eta hari esker bertaratuek eskolako txoko eta ezaugarri guztiak ezagutu ahal izan zituzten.

Zentrora hurbildutako hamahiru familiek, ikastetxeko ekiporekin laguntzarekin, gela guztiak ikusi zituzten, eta baita ere atseden lekuak, komunak eta argi taile-



rra. Gainera, familiek txikitxoak hezteko egunero erabiltzen dituzten zenbait material probatu ahal izan zuten, hala nola eskolan astean behin egiten duten tailerarekin gozatu.

Eskola bizitzeko modurik egokiena!



H. arituk prestakuntzarekin jarraitzen du

H. aritu taldea osatzen duten entitateek ikasturte honetarako programazioarekin jarraitzen dute. Otsailan, Maite Zudairek "Sendatzen duten elikagaiak" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Bertan elikadurarekin lotuta maiz oker egiten dugunaren berri eman zigun, eta intolerantzia eta alergieiei buruz mintzatu zen. Hitzaldia harrera eta interes handikoa izan zenez, baliteke aurrerantzean berriro antolatzea.



Kulturgunea bildu da

Pasa den otsailaren 22an Kulturgunea egin zuen aurtengo lehenengo bilera, eta bertan zenbait gai aztertu ziren. Haien artean, esaterako, foroak aurtengoa egiten dituen bilkuren egutegia finkatzea. Azken urteetako ohiturari jarraituz, bi hilabete behin elkartzeko da taldea, kulturarekin zerikusia duten gai garrantzitsuenaz hitz egiteko: dirulaguntza eta hitzarmenak, urteko kultur egutegia, jaiak, aktibitateen balorazioa eta Kulturgunea beraren dinamika. Bilkura egunak finkaturik gelditu badira ere, bereziak egiteko aukera zabalik dago, behar den bakoitzean, intereseko gaiak agertzen badira.

Bileran onetsi ziren 2018ko dirulaguntza eta hitzarmenen oinarriak; halaber, aurtengo hitzarmenen pro-

posamena aurkeztu zen, aurrekontuari dagokionez aldaketarik izan ez duena.

Aurtengo programazioaz mintzatu zen ere, eta aurreritako nobedadeetan jarri zen azpimarra. Horretaz gain, abuztuko jaiei begirako lehenengo zertzeladak eman ziren, izan ere, zenbait aferekin aurrerapausoak eman behar dira, orkestrekin esaterako.

Azaldutako gaiei buruzko ideia trukaketa egindakoan eman zitzaion bukaera topaketari. Taldeko hurrengo zita martxoaren 22an izanen da, eta bertan San Isidro eta abuztuko jaiei buruz hitz egiten da. Bertaratzeko gonbitea duzue, beti bezala.

Kultur balantzea

Inauteriak izan dira otsaileko protagonista nagusiak. Inaute egunetako larunbata goizean, bizilagun talde eder bat txistulariekin lagundurik Agoizko kaleetan barrena ibili zen arrautzak eta txistorra eskatzen. Arratsalde hasieran, Merkatuaren plazan txokolate jana goxoa egon zen eta ondoren, "Maskarita eta Kaskabobo kalea" ireki egin zen ohitura den moduan. Asteartean, bizilagun asko ikusgarri jantzi ziren kalejira egiteko, ostean, herritar guztiak txistorra-tortilla pintxoak dastatu ahal izan zituzten.

Gurekin urtero dugun beste ohitura bat Santa Agata eguneko kalejira da. Egun horretan, haurrak baserriarrez jantzita, eta faroltxo

eta makilak eskuan dutela kantari ibiltzen dira herriko kaleetan.

Elena Dufurrek egindako "Nostalgia de paisaje" akuarela lanaren erakusketa Kultur Etxeko areto nagusian erakusgai egon da, natura eta bere paisaiak kolorez eta argiz beterik, eta emozioz beteriko aberastasuna erakutsi digu.

José María Asín bakarlariak komedia dibertigarri bat antzeztu zuen, "Misterio Bufo", Dario Foren ikuskizun gorena. Ikuskizunak hiru istorio biltzen ditu giro komikoan kontatuak.

Otsaileko hilabetearekin amaitzeko, Víctor Manuel Egia historialariak hitzaldi interesgarri bat

eskaini zuen Iratiko trenarekin zerikusia zuena. Zehaztasun handiz eta baliabide grafikoak lagunduta "Un viaje en el ferrocarril de Irati a través de la fotografía" azaldu zuen. Eta Nafarroako Artxibategi Publikoan ikusgai egon den EL IRATI, S.A.ri buruzko erakustaldiari bukaera emateko, Egiak hitzaldi eta bisita gidatu bat egin zuen, 70 bat lagun bildu zituen.



Kanpondoa S.L.

HITZARMEN BERRIA. Kanpondoako langileentzako hitzarmena urtarrilean sinatu zen, hilabeteetan bile-
rak eta negoziazioak egin eta gero kirol elkarterako
bigarren hitzarmena sinatzea lortu zen. Lan-hitzar-
mena bi urterako da. Kontuan harturik kudeaketa
publikoa izan aurretik indarrean zegoen arloko beste
lan-hitzarmena, orain sinatu den hitzarmen berriare-
kin langileen lan baldintzak hobetu dira. Nahiz eta
bertako goera ekonomikoa delikatua den.

WEB-ORRI berria. Duela gutxi Kanpondoak guztiz
berritu du bere web-gunea. Diseinua gaurkotua du
orain, erraza eta argia, atal guztietan barna arazorik

gabe nabigatzeko. Web-gunea simple eta intuitiboa-
goa da, oraingo eta geroko erabiltzaileei zerbitzu
hobea eskaintzeko. Haren bidez nobedade, ekitaldi
eta gertakizun guztien berri jaso ahalgo da, hala nola
dokumentazioa jaitsi edo/eta iradokizunak egin.



José Antonio Vergarari omenaldia

Joan den otsailaren 10ean Agoizko
Kirol Elkarteak José Antonio Ver-
garari ongi irabazitako omenaldi
polit bat eskaini zion. Urteetan
emandako laguntza eta egin-
dako lan guztia goraiatu nahi
izan zen eta eguraldiak lagundu
ez arren, Jose Antoniok Agoizko
Kirol Elkarte guztiaren, oraingo eta
beste garaietako jokalarien, bere
famiaren eta zaleen berotasuna
jaso zuen.



Esther León Itoiz zendu da, NAFSE-36 sortu zuen andrea

Duela gutxi, Esther León Itoiz
zendu zen Iruñean, Aurelio León In-
daren alaba zen. Aurelio León Inda
Agoizko alkatea izan zen, Izquierda
Republikanako politikaria zen eta
1936ko irailaren 19an erail zuten
Eloko teilerian, faxisten estatu kol-
pean. Esther Leonek 86 urte zituen,
burua eta oroitzapenak argi-argiak
eta adeitsua zen oso, horrela, azken
egunetan ere senide eta lagun mai-
teak agurtu zituen.

Esther Jorge Cortés Izalekin ez-
kondu zen, senarra euskaltzalea
zen eta Nafarroako ikastoletako
sortzailea izan zen. Senar-emaz-
teak hiru semeen gurasoak ziren,

Jorge, Javier eta Imanol. Esther
Nafarroako Fusilatuen Senitarte-
koen Elkarteko sustatzaileetako
bat izan zen eta bere aitak paira-
tutako atxiloketa, eta heriotzaren
testigantza zabaldu zuen. Bere
bizi pena Gorka Moreno kazeta-
riak jasota utzi zuen "Unidos por
la verdad" liburuan, 1936an ger-
tatutako altxamendu faxistagatik
bizitako beste testigantza latzekin
batera. Beste hogeita lau pertso-
ekin batera "Agoitz, iragana gogoan"
liburu-DVDaren osaketan parte
hartu zuen; lan horrek, herrian
azken ehun urteetan gertatutakoak
jasotzen ditu.

Agoizko alkatea izandakoaren
bigarren alaba zen Esther; alaba
zaharrena Andrea zen, eta 2017
urteko otsailaren 6an zendu zen.
Goian bego.

